



IMANOL ALTUNA ▶ ERREMONTISTA

«Niretzat gaurko finalera heldu izana opari bat bezala da»

AMEZKETA ▶ Binakako Faustino Erremonte Txapelketa jokatu du gaur, Urrutiarekin batera

AURKARIAK ▶ Ezkurra eta San Miguel izango ditu arerio; «partida ona egitea dut xede», dio ▶ 5



Imanol Altuna amezketarrek 21 urte daramatza erremontean jokatzeko. I. TERRADILLOS

E. EZEIZA



Iñaki de Juanaren egoera salatzeko konzentrazioa

TOLOSA ▶ Atzo jende ugari bildu zen Triangulo plazan; ostiralero egingo dute gose greban dagoen bitartean ▶ 4

JUAN PABLO ZUBELZU ▶ ENTRENATZAILEA

«Areto futbol izenez ezagutzen den benetako futbola egin dugu»

Ibarra taldeko entrenatzaileak denboraldia ondo doala esan du ▶ 6

ZAS
soinu ikastaroa
Informatika musikala (Cubase)
Grabaketa eta masterizazio profesionala
P.A. eta monitoriak
Eta aber
943 65 35 35
www.sointek.net

orange **Orange** ONjy
Gernikako Arbola, 1 • TOLOSA
TELEFONOA DOAN
+
%50eko deskontua betiko
Euskaltelen kontratu bidezko bezero bazara

DR. JOSE GISASOLA
DIPLOMATUA
OSTEOPATIA MEDIKUA
BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA
Lumbalgia, Hernia Diskala, Ziatika
Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrrosia,
Buruhezur-aurpegiko mina, ATM
Nafarroa Etorbidea, 11 / 20400 Tolosa (Gipuzkoa) / T 943 451 422

GIZARTEA ▶

Baikorki baloratu ditu LAB sindikatuak lortutako emaitzak

Hauteskude sindikalen epe trinkoa amaitu da; datuen arabera bederatziz delegatu gehiago lortu dituzte

ESTI EZEIZA

Hauteskude sindikalen epe trinkoa amaituta, denbora honetan gertatutakoaren balorazioa egin dute Tolosaldeko LAB sindikatuko arduradunek. Beraien ustetan, «inolakoa za-

lantzarik gabe» sindikatu abertzaleak lortu dituen emaitzak «oso onak» dira.

Sindikatuok agertutakoaren arabera, Tolosaldeko langileek LABen proiektu sindikala indartzeko hautu nabarmena egin dute, bide batez, «beraien

babesa sostengu bilakatu». Bestalde, egindako hauteskunde prozesuetan lortutako emaitzetan ikusten da sektore eta enpresa ezberdinetan LABen igoera konstantea. 2006ko abendura arteko aukera sindikal desberdinen banaketa

agertzen duen taulan ikus daitekeen bezala, 2002ko datuekin alderatuz, bai delegatu kopuruari dagokionean, eta baita portzentualki ere, LAB da igoera izan duen bakarra.

LABekoen ustetan, beste datu garrantzitsu bat da, 48 delegatu gutxiago aukeratu izana. Alabaina, 2002an guztira 433 delegatu bazen, 2006an, 385. Sindikatu abertzalekoek aditzera eman dute, «datu hau Tolosaldea pairatzen ari den desegituratze industrialaren ondorio zuzena da, enpresa eta lanpostu askoren galera suposatzen duena: Winkler, AMCO, Salvadora, Tolosana, Epak, Becker, Gerontologikoa, Luminia...».

Era berean, kontuan izanda hauteskunde sindikalen prozesua, prozesu iraunkor bat dela, sindikatu abertzalekoak ziur daude denbora gutxi barri, beraien sindikatuak eskualdeko errepresentazio maila altuena lortuko duela lehen aldiz. «Horretaz konbentzita gaudete eta Tolosaldeko azken enpresaraino iristea lortze aldera esfortzu garrantzitsua egingo dugu» gaineratu dute.

Emaitza hauek direla eta, LABek eskerrak eman nahi dizkie Tolosaldeko langile guztiei, beraien jarritako konfiantzagatik.

KULTURA ▶

AEKren euskara ikastaroetan izen-ematea

E. EZEIZA

Tolosaldeko AEKk euskara ikasi edo hobetu nahi dutenentzako matrikula epea ireki du. Maila guztietako ikastaroak antolatuta dituzte, hau da, behe, erdi eta goi urratsetakoak. Hauetaz gain, EGA, alfabetatze nahiz hizkuntza eskakizunetarako ikastaroak ere eskaintzen dituzte.

Izena emateko epea hila-bete honen 31n amaituko da eta bulegoa 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara izango da zabalik. Informazio gehiago nahi izanez gero, interesatuek, 943 59 17 04 telefonora deitu edo AEKk Andoaingo Extremadura 5 behean duen bulegora jo beharko dute.

Bestalde, iaz bezala, Lizartzan, Iruran, Amasa-Villabonan eta Zizurkilen maila desberdinetako euskara eskolak antolatuta dituzte. Hemen parte hartzeko interesa dutenek Andoaingo AEK euskaltzira joan beharko dute.

TOLOSA ETA VILLABONAKO DATUAK ▶

PORTZENTAIK	LAB	CCOO	ELA	UGT	ESK	USO	ESP	NS	OTR
URTEA									
2006	%42,60	%8,57	%43,90	%1,82	%0,26	%0,26	%0,00	%2,60	%0,00
2002	%35,80	%10,39	%46,88	%4,62	%0,00	%0,23	%0,00	%2,08	%0,00
Diferentzia	+%6,80	-%1,82	-%2,99	-%2,80	+%0,26	+%0,03	%0,00	+%0,52	%0,00

DELEGATU KOPURUA

URTEA	LAB	CCOO	ELA	UGT	ESK	USO	ESP	NS	OTR
2006	164	33	169	7	1	1	0	10	0
2002	155	45	203	20	0	1	0	9	0
Diferentzia	+9	-12	-34	-13	+1	0	0	+1	0

POLITIKA ▶

Iñaki de Juanaren egoera salatzeke, konzentrazioa egin dute Triangulon

Gose greban jarraitzen duen bitartean ostiralero egingo dituzte

E. EZEIZA

Amnistiaren aldeko mugimenduak deituta konzentrazioa egin zuten atzo iluntzean, Iñaki de Juanaren egoera salatzeke. Jende ugari bildu zen Triangulo plazan euskal presoari babesa eman asmoz.

Azaroaren 7an ekin zion euskal preso politikoak gose greba mugagabeari, Audientzia Nazionalak emandako epaia salatzeke helburuz. Hala, iturriek jakitera eman dutenez, egunean 10 orduz ohera loturik daukate, eta bere gogoz kontra elikatzen dute.

Hau guztia dela eta, baldintza demokratikoak errespetatzea eta De Juana askatzea exijitzeko mobilizazioak egingo dituzte ostiralero. Gose greban jarraitzen duen bitartean behintzat, konzentrazioak egingo dituzte Triangulo plazan 19:30ak inguruan.



Jende ugari bildu zen atzo iluntzean egindako konzentrazioan. E. EZEIZA

HERENTZIAtan
IXIAR ARTEAGA ABOKATUA
esperientziduna
Tel.: 618 13 00 81 • TOLOSA

Beti *alai* jatetxea
Garaian garaiko janariak
Arraiketan berezia
© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GIZARTEA ▶

Montezkueko ur hornikuntza proiektua onartu dute

Eroanbide berri bat egin, eta ponpaleku bat jarri beharko dute, besteak beste

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak aste honetan bertan erabaki du behin betiko onartzea Tolosaldeko Montezkueko ur hornikuntzaren proiektua.

Lurraldeko azpiegitura hidraulikoetako inbertsio politikaren barruan dauden helburuetako bat da Ibiurko urtegiaren oinarrituta Tolosaldea urez hornitzeko sistema amaitzea. Tolosak orain bertan, hiru ur biltegi nagusi ditu, San Blas, Montezkue, eta Pisuarga, eta San Blasera iristen da Ibiurkiko datorren ura. Hala ere, Montezkuekoaren garaiera dela eta, ezinezkoa da haren bitartez lotzea; horregatik, eroanbide berri bat egin behar dela aurreikusi dute Ibiurko sare nagusiari lotzeko.

Horretarako, eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren enkarguz, Injelan SL enpresak Montezkue auzoko ur biltegi hori hordura proiektua idatzi berri du.

Egin beharreko obrak ondorengoak izango dira: eroanbide berri bat egitea, Ibiurko ur hornidura sisteman oinarrituta Montezkueko ur biltegia —2.500 metro kubikokoa— urez hornituko duena; baina, horretarako ponpaleku bat beharko da ura biltegiaren garaieraraino bultzatu ahal izateko. Gipuzkoako Ur Kontsultazioarekin izenpetu zen lankidetzak hitzarmenean erabaki zuten, hain zuzen ere, lan horiek egitea.

EKONOMIA ▶

Baliabideak hobeto ustiatzen laguntzeko kanpaina abian

Tolosaldea Garatzenek jarri du Infotechnalia kontsultoraren bitartez; eskualdeko udaletxeetara bideratuta dago

ERREDAKZIOA

«Eskualdean aurrekaririk gabe» Tolosaldea Garatzenetik teknologiaren optimizazio kanpaina jarri da abian, Infotechnalia kontsultoraren bitartez. Kanpaina honen bidez doako aholkularitza zerbitzua eman go zaie eskualdeko udaletxei, haien telekomunikazio-ekipamendua eta kontsumo energetikoen gastuak egokitzen laguntzearen.

Izan ere, «Tolosaldea Garatzeneko helburu nagusienetako bat, eskualdeko garapen agentzia den moduan, eskualdeko udaletxeekiko lankidetzak izanik, garapen eta efizientzia ekonomikoa, kudeaketako tresnak eta baliabide teknologikoa hobetzen lagunduko duten pausoak ematea da». Azaldu dutenaren arabera, kanpaina hau, hasiera batean, eskualdeko udaletxeetara bideratuta dago. Hauek beraien telekomunikazioen eta energien gastuak murrizteko analisiak gain, gehien komeni zaien ekipamendu informatikoari buruzko orientazioa eska dezakete: web orriena, datuen segurtasunari buruzko aholkularitza (backup remotoak, datuen berreskuratzea), Datuen Babeserako Lege Organikoari buruzko orientazioa, domotikari buruzko orientazioa, norberaren beharretara bideratutako software-aholkularitza, eta edozein soluzio teknologikoen orientazioa.

Hala, telekomunikazioetan kontsumoaren analisi pertsonalizatu bat egingo dute, telefo-



Tolosaldea Garatzen garapen agentziako egoitza. HITZA

no finkoetan nahiz mugikorretan. «Azterketa honen bidez, erabiltzaileak orain duen kontsumoa merkatuan dauden beste batzuekin alderatuko da, kalitatean nahiz prezioan». Udak bakoitzak dituen telefonogune-operatibitate beharrek ere aztertuko dituzte.

Bestalde, energiaren alorrean, kontsumoaren azterketa egingo dute, «fakturen azterketa bidez gastuak murriztu baitaitezke, kasu askotan eragile energetikoa aldatu ere egin gabe».

Abiarazi duten kanpaina honen helburua, «eskualdeko udaletxei baliabideak hobeto ustiatzen laguntzea da teknologiaren optimizazioaren bidez». Kanpainak 2 hilabeteko iraupena izango du, nahiz eta luzatzeko aukera egongo den udaletxeen eskaeren arabera.

Informazio gehiago nahi duenak edota eskaera bisitak zehaztu nahi izanez gero, info@techniaconsultores edo tolosaldea@tolosaldea.net helbideetan egin ahalko ditu eskakizunak.

HIRIGINTZA ▶

Trafiko aldaketak Larramendi kalean

Gorostidi enpresaren eraikineko fatxada botatzeko, bihar itxita egongo da goizean

ERREDAKZIOA

Gorostidi enpresaren pabiloi zaharra, Larramendi kalekoa, botatzeko obrak direla eta, segurtasunarengatik, bihar aldaketak egongo dira trafikoa. Donostiatik datozen ibilgailuentzat itxita egongo da kalea 08:00etatik 15:00etara —Arkaute 9 eta 11ko garajeetakoentzat izan ezik—. Donostiarakoa ere itxiko dute —1 eta 3 zenbakidun garajekoei izan ezik—.

Herrira sartzeko eta herriatik ateratzeko Anoeta-Irurako errepidea eta autobideko Amaroako eta Olarraque sarrerak irteerak erabiltzea gomendatzen dute. Garraio publikoan ere eragin berbera izango du, beraz, euren ibilbideak aldatu egin beharko dituzte eta abisua eman, ahal duten heinean, erabiltzaileei.

ZINEMA ▶

‘Cristobal Molon’ eta ‘El perfume’ gaur Leidorren

ERREDAKZIOA

Gaztetxoentzat *Cristobal Molon* filma izango da gaur ikusgai 17:00etan, Leidorren. Helduentzat, berriz, *El perfume* filma eskainiko dute, 19:30ean eta 22:30ean, Leidor aretoan.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztiaren prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

Urteurrena ▶

II. urteurrena

Ibai Agirretxe Salsamendi

Denok amestu diagu
hi pizteko esperoa
baina baduk bi urte
ez haizela gure ondoan
eta ez haugu ahaztu
nahizta denbora badoan
haukagu beti gogoan

Guraso, anai-arreba eta amonek

meza ▶ Bihar, igandea, 12:30ean, Errezilgo San Martin parrokian.

ERREZIL, 2007ko urtarrilaren 13a

urteurrena ▶

II. urteurrena

Ibai Agirretxe Salsamendi

2005eko urtarrilaren 9an hil zen, 17 urte zituela

Aizazu Ibai, oraindik ere
gu bat gubxiago gera
bi urte pasa arren ez gera
irtisi zu ahaztera.
Nola distantziak bixkia dagon
zeru gainetik lurrera
lehen gurekin bizi zinen
guregan biziko zera.

Zure koadriak ez zaitu inoiz ahaztuko

oharra ▶ Meza bihar izango da, Errezilgo elizan,
12:30ean. Aldez aurretik, mila eskerr.

ERREZIL, 2007ko urtarrilaren 13a

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ KIROLA

Danena-Olaederra, aurtengo erronkei aurre egiteko prest

Halterofilia taldekoak «pozik» aurreko hilean Espainiako Kluben Arteko Txapelketan lortutako hirugarren postuarekin



Espainiako Kluben Arteko Txapelketan parte hartu zuten pultsulariak eta entrenatzaileak. HITZA

IMANOL GARCIA

Danena-Olaederra Halterofilia taldeak erronkaz beteriko urtea du berriro ere aurtengoa. Emaizta bikainak lortu zituen bai talde bezala, baita bere pultsulariek ere eta horrela jarraitzeko asmoa du. Hurrengo lehiaketa Espainiako Koparen finala izango da, Madrilen. 16 eta 18 urte azpiko pultsulariek hartuko dute parte eta Danena-Olaederrakoak ligaxkan bigarren sailkatu dira bi mailatan. Beraz, finalean izango dira, hemendik lau astetara.

Pultsulariek, batez ere gazteek, erronka ugari izango dituzte aurtengoa. Jon Ander Iriarte eta Igor Sasiain iazko Europako 17 urte azpiko txapelketako parte-hartzea errepikatzen saiatuko dira. Iker Hernandez eta Julen Intxausti ere ahale-

ginduko dira horretan. Bartzelonara joandako Ekaitz Kortajarena eta Teddy Martinez ez daude oso gustura hango prestaketarekin. Kortajerana egun lesionatuta dago eta Martinezek agian Madrilerako joateko aukera izango du. Jon Sasiaini, Madrilerako joandakoa prestatzera, lesio bat izan ondoren ebakuntza egin zioten. Hala ere, agian berriro beste ebakuntza bat egin beharko diote.

Espainiakoan hirugarren

Danena-Olaederrak jokatu duen azkeneko txapelketa abenduaren 16an izan zen. Espainiako Kluben Arteko Halterofilia Txapelketa egin zuten Zaragozan (Espainia). Eskualdeko taldeak hirugarren postuan amaitu zuen. Txapelketa

horretan parte hartzeko guxieneko markak lortu zituzten klubak 16 ziren.

Parte hartu zuten klubean izen handiko pultsulariak bazeuden ere, lortutako 3. postu honek «poztu» ditu Danena-Olaederrakoak, «ez baigegunen espero hain goran sailkatzea», Kortajarenak azaldu duenez. Txapelketa honetatik «moralaz beteta» itzuli dira aurtengo txapelketei aurre egiteko. Espainiako Txapelketako guztien artean, hori da oraingoz irabazi ez duten bakarra.

Txapelketa horretan pultsulari hauek osatu zuten taldea: Jon Tecedor, Bruno Soto, Gorka Lopez, Paco Cruz, Angel Martin, Teddy Martinez, Igor Sasiain eta Jon Ander Iriarte. Hauekin batera Batis Kortajarena eta Iñaki Iturbe entrenatzaileak izan ziren.

POLITIKA ▶



Atzo Villabonan egindako manifestazioaren une bat. I. GARCIA

Segiko auzipetuei babes 200 lagunek

Segi antolatzen, Segi Borrokatzen. Independentzia eta Sozialismoa lelopean mobilizazioak egin ziren atzo Tolosan eta Villabonan. 200 lagun inguruk hartu zuten parte bi manifestazioetan eta Jarrai-Haika-Segi auziaren epaiketa salatu eta bertan inputuak daudenei babes 200 adierazi zieten.

GIZARTEA ▶

Errausketaren aurka bat egiten du Onddolar-ek

Villabonako Onddolar plataformak bat egiten du bihar Usurbilen errausketaren aurka egingo den manifestazioarekin. Aurretik beste ekitaldi bat antolatu dute. Bihar 09:00etan elkartuko dira Zizurkil-Goiko plazan eta menditara martxa egingo dute Usurbileraino. Bestalde, errausketaren aurkako mugimenduek giza-kate bat antolatu dute Lasartetik Usurbilera, 10:30ean abiatuta. Manifestazioa 12:00etan hasiko da Usurbilen.

LEABURU ▶

Txarama Elkartean urteroko bilera

Txaramako Elkartean urteroko bilera orokorra egingo du bihar 11:00etatik aurrera bere egoitzan. Ondorengo gaiak jorratuko dira: aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, egoera ekonomikoa, proposamen ezberdinak, eskaerak eta iradokizunak eta baita direktiba berriaren onarpena ere.

VILLABONA ▶

Erretzeari uzteko ikastaroa, Udalak antolatuta

Nola utzi erretzeari ikastaroa antolatu du Udalak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak diruz lagunduta. Ikastaroa Minbiziaren Aurkako Elkarrekin emango du. Hilaren 24ean hasiko da eta guztira zortzi saio izango dira, asteazkenean 19:00etatik 20:30era, udaletxeko areto balioaniztan. 60 euro balioko dituzte ikastaroak eta beraz bukatzen dutenek diru hori eskuratzeak aukera izango dute. Izena emateko 943 69 39 25ra deitu behar da.

hilberria ▶

Jose Karrikiri Inda

Jauna

Atzo hil zen, 73 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Golan bego -

Emaztea: Maria Ines Garaño Altuna; seme-alabak: Amaia eta Mikel Zabala, Jaione eta Txuri eta Joseba eta Ziortza Vallejo; ama: Felicitas Inda (Domingo Karrikiriren alarguna); bilobak: Oihan eta Urtzi; anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidetek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte LA GUR LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, SAN JOSE OBRERO parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Biteri, 15-1-C

ORERETA, 2007ko urtarrilaren 13an



hilberria ▶

Roke Arkauz Diaz de Mendibil

Zoriak du bere hitza bete, joan da kide genuena maite, BALEAren omenez, Roke gero arte.



BALEA Elkartea

ORIO, 2007ko urtarrilaren 13a



PILOTA ▶

Euskadiko klubuen arteko Txapelketa Beotibarren

N. URBIZU

Gaur Aurrera-Saiatz pilota eskolako lehenean partidan Belete II.aren aurka ariko dira jubenilen mailan, 10:30etik aurrera. Ondoren senior mailako Onsalo Paz Zigandakoaren aurka izango da, eta hirugarrenik, Olaetxea-E. Galarra seniorrak San Miguelekoen kontra.

Bihar, berriz, 22 urte azpi-koen mailan 11:00etan Oberenaren aurka ariko da Mujika, eta ondoren maila bereko bikotea: Renobales-Telletxea Irurtzungoan aurka izango dira.

Bestalde, IV. Berria Pilota Txapelketari hasiera emango diote eta honetan Leitzako Aurrera pilota eskola ariko da bihar Altzako frontoian. 10:30etik aurrera hasiko dira Andazpe eskolakoen aurka.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

IMANOL ALTUNA ▶ ERREMONTISTA

«Gaurko finala jokatzera niretzat opari bat bezala da»

Binakako Faustino Erremonte Txapelketako finalean ariko da gaur Urrutia atzelari gaztearekin batera, eta Ezkurra-San Miguel bikotearen aurka

NEREA URBIZU

Erremonte munduan jadanik 21 urte egin ditu Imanol Altunak (Amezketan, 1968). Binakako Faustino Txapelketan finala jokatu du gaur arratsaldean, 17:00etan, Galarreta pilotalekuan. Partida ETB-1en ikusteko aukera izango dute jarraitzaileak.

Urrutiarekin jokatzera duzun lehen aldia da. Zer moduz harrekin?

Bai. Bizpahiru urte daramatza Lehenengo Mailan, berria da, baina ondo nabil berarekin. Jendeak uste zuen hasieran zereginek izango ez zuen bikotea izango zela horregatik, hura berria delako, baina txapelketa ona egin dugu eta moralarekin nago aurrera egiteko. Nik uste dut erremonteko jarraitzaileak txapelketan zehar partida politak ikusi ahal izan dituela.

Zer moduz sentitzen zara final handi honen aurrean?

Ilusio handiarekin nago. Finala oso urruti ikusten nuen, baina jokatzera hasi, irabazten joan eta joku bolada ona genuela ikusi nuen. Orduan gogo handiekin jarraitu nuen. Niretzat finala ondo jokatzera opari bat bezala da. Orain finala ondo bukatzea nahi dut. Irabazten ez badugu ere, partida ona egin nahi dut.

Eta tentsioa zer moduz?

Tentsioa nabaritzen da, baina sentitzen den puntu hori polita da. Honetan jarduten dugun guztiok ume-umetatik izaten den ametsa da final bat. Biziago sentitzen naiz tentsio honekin. Gorputza ehuneko berrehunean jartzen zaizu tentsio honekin.

Aukeratu duzun materialarekin konforme?

Bai, kezarik ez dut. Urtean zehar materiala beti berdintsua ematen digute. Onak badira urte osoan horiekin jolastean dugu. Nik soinuari, tokeari ematen diot garrantzia: denetik daukagu gaurko finalean; pisutsuagoak, gorraragoak, biziak nahiz motelak.

Zer esan arerioetaz?

Ezkurra-San Miguel. Zer esan Ezkurrak, ez? Berataz dena esanda dago. Ez du bolada ona izan, baina txapelketa hasi eta goraka joan da. Betiko Ezkurra ikusiko dugu gaur. Azken urte-etako pilotaririk handiena da.



IÑIGO TERRADILLOS

San Migel da ezustekoa eman dezakeena: oso gaztea da eta agian segurtasuna falta zaio, baina dohainak dauzka eta egun ona badu, kontuz. Hala ere, ondo badoakio, batzuetan dago: giro polita egoten da.

Beldur zara?

Ez. Gure jokua ondo eginda estutu egingo ditugu. Errespetua izan behar zaio, noski, Ezkurra delako, baina joku ona egiten badugu edozer gerta daiteke.

Galarretan edo Iruñean nahiago?

Galarretan. Iruñeakoa beharrezkoa joan da, ez da horrenbeste jende ikustera joaten eta hoztagoa da. Galarretak bezero leialak dauzka, eta erremontea ikusteko ohitura handiagoa dago: giro polita egoten da.

Amezketar jarraitzaile asko joatea ona da zuentzat?

Bai, polita da, gurekin daudela ikusteak poztzen gaitu. Ilusio handiarekin datoz ikustera eta zurgandik guztia espero dute. Behar dira jarraitzaileak, biziago egoteko balio du. Partida galduz gero, jendeak desilusioa eramatzen du ere.

Prestatuta berezirik egin duzu aste honetan?

Ezer berezirik ez... Betiko saioak egin ditugu, baina gogoz eta ilusioarekin ari gara. Atzo luza-pen bereziak egin nituen eta gero beharrezko tentsio hori mantentzen saiatu. Onena jokatzera da, partidak egitea. Guk urte osoan zehar bizpahiru partida jokatzera ditugu astero-astero. Horretara ohituta gaudere.

Hori ez al da gehiegiz?

Bai, hori nahi dugu ere, gainera momentuz ez dut lesio serioirik izan. Dena dela, hitz txikiekin esateko gauzak dira hauek. Batek daki, agian bihar ezingo

dut jokatu... Alde horretatik zorzea izan dut.

Tolobistan ikusi ahal izango da finala. Zer leku du erremontek komunikabideetan?

Esku pilotak leku asko jan dio erremonteari, baina orokorrean komunikabideek ez dute bultzatzen. Bolada txarrak izan ditu eta izango ditu, baina bizi-rik jarraituko du.

Zer gertatuko da gaur?

Nik 40-39ko emaitza nahi dut nire alde, noski [kar, kar]. Ateratzen dena aterata, baina partida on bat egin nahi dut, ikus-kizuna eskaini, alegia.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisu Santa Klara kalean, Salgai (Irura). Lokala Kale Nagusian, Salgai (Tolosa).
Ileapaindegi egokitua lurre auzoan, Salgai (Tolosa).
Belardenda, Kale Nagusian, negozioa marban, Salgai (Tolosa).
Lurre auzoan, Ofizinarako, Haseak emateko, etab, lokal txikia. Oso modu onean, Salgai (Tolosa).
Lokalak Emperadore kalean eta Kale Nagusian, Salgai (Tolosa).
Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren, Salgai (Tolosa).
Garajeak, Leitor azzpian, Alokatzeko (Tolosa). Pisu Kale Nagusian, Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak, Araba etorbidean, Alokatzeko (Tolosa). Lokalak, Arbol de Gernikan, Allirin eta Laskorain kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Urtarrilak 13an Txotx garaiari hasiera emango zaio.

ISASTEGI sagardotegia

Larunbat eguerditan irekita

Isastegi Sagardotegia, S.L.
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - TOLOSA
Tel.: 943 65 29 64

JUAN MANUEL ZUBELZU ▶ IBARRA ARETO FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

MADDI SOROA

2006ko denboraldi berriarekin batera hasi zituen Juan Manuel Zubelzu Txubelek (Ibarra, 1967) Ibarra Areta Futbol Taldeko entrenatzaile lanak. Denboraldi erdia pasatu den honetan, oso garbi ditu gauzak Txubelek taldearen egoeraren harira eta gustura agertu da.

Joaneko azken partida izango da gaurkoa. Zer nolako balorazioa egiten duzu denboraldira?

Denboraldi ona egiten ari gara uste dut. Liga hasi genuen lehenengo lau postuetan geratzea zen helburua eta momentuz mantentzen ari gara. Oso hasiera ona egin dugu, gertatzen dena da azken bi partidak galdu egin ditugula, merezi gabe. Lidarrerangandik lau puntura egon gara baina orain jada 10 puntura dauka, beraz, zaila ikusten dut sailkapeneko lehen postua lortzea. Bigarren eta hirugarren postuan dauden taldeak, ordea, puntu bakarrera ditugu, beraz, Gabonetako oporrak pasa eta gero ea piska bat espabilatzen garen.

Merezi gabeko partidak galdu dituzuela aipatu duzu.

Merezitako partida bakarra galdu dugu, Burlatan 3-1ekoa. Oso partida inozoa izan zen, ez ginen partidari sartu eta ezin izan genuen irabazi. Galdu ditugun beste bi partidak xehe-tasun txikiengatik galdu ditugu. Candesari erraz irabazi behar genion eta bi segundoren faltan geundela partida galdu genuen. Logroñoren aurka ere minutu bakar batengatik galdu genuen norgehiagoka. Huts egite puntualak dira, jokalarik jakin batzuen esperientzia faltagatik-edo gertatzen direnak. Galdu ditugun partidak ez dira izan maila baxuagoa eman edota gaizki jokatzegatik.

Zertan oinarritu duzue denboraldiko jokoa?

Areta futbol izenez ezagutzen den benetako areto futbola egin dugu, baloia asko mugituz, entrenaturiko mugimenduak eginez, teknika asko erabiliaz eta atzean hainbeste sartu gabe. Ikusiz gozatzen den

«Areta futbol izenez ezagutzen den benetako areto futbola egin dugu»

Juan Manuel Zubelzuk denboraldiko jokoa ez dela aldatu behar eta jokalariek oso ondo ari direla adierazi du



MADDI SOROA

futbola egiten dugu. Talde asko atzean geratzen dira eta beste mota bateko jokoa egiten dute, ez dira zelaira ateratzen eta defentsa jokoa egiten dute, eraso

gutxiarekin eta gertatuko denaren zain egonez. Gu partida hasieratik burubelarrri jartzen gara lanean eta entrenamenduetan landuriko jokoa egiten saiatzen gara. Ikusle asko izaten da gure partidetan eta horrek jokalariek motibatuta daudela eta joko ona egiten dutela adierazten du.

Hobetzekorik badu taldeak?

Taldea osatuago eta konpetitiboagoa egitea litzateke zerbait hobetzekotan egin beharrekoa, taldea motz geratzen baitzaigu. Hasieran bagenuen jendea baina bi jokalarik taldea utzi dute eta beste bi lesionaturik daude. Guztira zortzi jokalarik eta bi atezain soilik ditugu. Entrenatzeko ere zailtasunak

izaten ditugu jokalariek lana egiten baitute eta beraz, askotan ezin dugu talde guztiarekin entrenatu. Goran egon nahi baduzu maila handiko eta esperientziadun bederlatzi edo hamar jokalarik izan behar dituzue gutxienez.

Zein litzateke irtenbidea?

Oso irtenbide erraza daukat, jokalariek berriak ekartzea, baina hori oso zaila da, Gipuzkoan ez baitago maila handirik. Donostiako EHU taldeak esaterako, maila handiko jokalariek dituzte baina ez dute entrenamenduetarako guk eskatzen dugun seriotasun eta jarraikortasunik. Jokoari dagokionez, guk beste modu batera jokatzeko dugu eta gutxienez sei hilabete

DENBORALDIA

«Liga hasieran lehen lau postuetan geratzea zen helburua eta momentuz mantentzen ari gara»

TALDEA

«Taldea osatuagoa eta konpetitiboagoa egitea litzateke zerbait hobetzekotan egin beharrekoa»

HELBURUAK

«Klubaren egoera hemen egotea da, taldea mantentzea momentuz ez dugu igotzeko asmorik»

beharko litzateke jokalariek berriak gure jokora ohitzeko. Lehendakariarekin hitz egin beharreko gaia da. Une honetan klubaren egoera hemen egotea da, taldea mantentzea. Agian, datorren urtean edo hementik bi urtera igotzeko asmoa izan dezakegu, momentuz, ordea, ez.

Zein litzateke denboraldi honetako helburuak?

Sailkapen orokorreko lehen lau postuetan geratzea litzateke aurtengo denboraldiko helbururik nagusiena. Lehenengo postua lortzea zaila ikusten dut baina bigarrena lortzea ez dut hain zaila ikusten.

Logroño liderra garaitzea ezinezkoa da orduan?

Talde ona da baina ez da hainbesterako ere, hobeak zirela uste nuen. Egia da, ordea, maila eta esperientzia handiko jokalariek dituzte. Hamar puntura daukagu, baina partida bat edo bi galduz gero beraiek ere burua jango dute. Hala ere, zaila ikusten dut Logroño garaitzea. Bestalde, orokorrean talde guztien maila asko igo da eta beraz, gauzak ez dira hain errazak.

Arbitroekin arazoak izan dituzue noiz edo noiz, ezta?

Araudi berria dagoenetik arbitroetako asko galduta bezala daude eta nahasmen handia dago gai honen inguruan. Arbitro batzuk modu batera betetzen dute araudia eta beste batzuk bestera. Bestalde, arbitroen maila bera ere nahiko baxua dela uste dut. Hori horrela izanik, arazoren bat edo beste izan dugu araudiarekin partituetan, guk betetzen ditugun araudi berriko aldaketak ez arbitroek ez eta beste taldeek ere ez dituztelako betetzen.

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko lanak. Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta 15 eta 10 urteko bi gazte arduratzeko. Deitu: 656 76 64 39 zenbakira.

Lorezainak. Tolosaldeko enpresa batek lorezainak behar ditu. Deitu 615 78 45 76 zenbakira.

Banatzaila. Baserriko produktuak banatzeko banatzaila bat behar da. 943 68 22 14.

Elektrikaria. Elektrikaria behar da Villabona inguruan, industrian lan egiteko. 629 53 40 50.

Etxeko lanak. Neska euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 65 12 64.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Spaniel arrazako txakurra galdu da Belauntzan. Deitu 689 89 24 34ra.

PILOTA ▶

Nafar Jokuen lehenengo partida, gaur

10:00etan hasita 6 partida jokatuko dituzte Amazabal pilotalekuan

NAIARA GARZIA

Gaur hasi eta apirilaren 1era arte jokatuko den Nafar Jokuen Txapelketaren ondorioz, larunbatero pilota partidak jokatuko dituzte Leitzako Amazabal pilotalekuan, 10:00etan.

Txapelketa hiru mailatan jokatuko da: benjamin, hasi berri eta haur-kategorian. Lehenengo fasea martxoaren 11an amaituko dute, martxoaren 18tik 25era finalerdiak jokatuko dituzte eta finala, apirilaren 1ean. Gaur hasten dena, hala ere, Nafar Jokuen Txapelketaren 2. fasea izanen da. Gabon aurretik jokatu baitzuten lehenengo zatia.

Gaurkoa Leitzako Aurrera Pilota Eskolak eskuartean duen txapelketa nagusienetarikoa bada ere, ez da bakarria, Leitzako eta Aresoko pilotariak beste hainbat txapelketa ere jokatzen baitira. Donezteben jokatzen hasi berri den Erreka Txapelketa da lehenengoa. Bertan eskola honetako 8 pilotarik parte hartuko dute hiru maila ezberdinetan: Oihan Alduntzin, Zuhaitz Beloki —22 urtetik beherakoak—, Joxerra Aldaregia, Xabier Easo —haurren kategorian—, Ibai Gil eta Mikel Sagastibeltza, eta Oinatz Mariezkurrena eta Ibai Azurmendi —hasi berrietan—.

Bestalde, Berria Txapelketa gaur hasiko da, Iruñean. Bihar jokatuko dituzten neurketetan leitzarrak Altzan ariko dira, Usurbilgo pilota eskolako kidearen aurka. Kadete mailan Jon Jaunarena eta Joseba Irao-

la —azkenekoa Doneztebeko Erreka eskolako— ariko dira, gazteen kategorian, Haritz Sagastibeltza eta Aitor Goikoetxea, eta seniorretan, Mikel Iriarte eta Gorka Urtaun —Paz de Ziganda pilota eskolako—. Patxi Sagastibeltzak, Aurrera Pilota Eskolako arduradunetako batek azaldu duen bezala, «txapelketa hau serioagoa da. Euskal Herri mailan jokatzen da eta arrakasta handia izaten du».

Txapelketa hauetaz gain, Aurrerako zenbait pilotarik ere bakarrik jokatuko dute beste txapelketa batzuetan. Jon Jaunarenaren kasua da hau, Donostiako Antiguoko Txapelketan ariko baita, otsailean, kadetetan. Haritz Sagastibeltzari dagokionez, berriz, martxoan hasiko den Espainiako Txapelketan jokatuko du, gazteen mailan.

Honetaz gain, bada pilota eskolan neskontzako lekuri ere, izan ere, Jera Agirre eta Saioa Iraola (pala jokalariek) otsailean 4ean hasiko den Euskal Herriko ligan izanen dira.

Eskolaren indarra

Aurrera Pilota Eskolak 40-45 pilotari inguru ditu eta aipatutako txapelketetan ez dute denek parte hartuko. Batzordeko ordezkariak esan dutenez, «arrazo bat baino gehiago daude pilotari batzuk txapelketa hauetan parte ez hartzeko. Txapelketan parte hartzea gus-tuko ez dutenak badaude, beste batzuk eskuetan arazoak di-

TXAPELKETAK ▶

NAFAR JOKUAK

HASIBERRIAK

1. kategoria. Anartz Olano - Mikel Sagastibeltza. Ibai Gil-Mikel-Sagastibeltza.
2. kategoria. Markel Barriola-Asier Gil. Oinatz Mariezkurrena-Iñaki Saralegi.
3. kategoria. Iker Sagastibeltza-Josu Zabaleta. Ibai Azurmendi-Julen Goikoetxea.

HAUR KATEGORIA

1. kategoria. Joxerra Aldaregia-Xabier Jaunarena aurka.
2. kategoria. Mikel Onsalo-Xabier Erasoa.

ERREKA TXAPELKETA

HASIBERRIAK

1. Ibai Gil-Mikel Sagastibeltza.
2. Oinatz Mariezkurrena-Ibai Azurmendi.

HAUR KATEGORIA

Maila bakarria. Joxerra Aldaregia-Xabier Easo.

22 URTETATIK BEHERAKOAK

Maila bakarria. Oihan Alduntzin-Zuhaitz Belokiren aurka.

BERRIA TXAPELKETA

KADETEAK.

Fitxaketa. Joseba Iraola-Jon Jaunarena.

GAZTEAK

Leitzarrak. Aitor Goikoetxea-Haritz Sagastibeltza.

SENIORRAK

Fitxaketa. Mikel Iriarte-Gorka Urtaun.

BESTE ZENBAIT TXAPELKETA

DONOSTIAKO ANTIGUOKO

TXAPELKETA
Otsaila. Jon Jaunarena.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Martotik aurrera. Haritz Sagastibeltza.

EUSKAL HERRIKO LIGA

Otsaila. Jera Agirre eta Saioa Iraola, palan.

tuzte, eta helduenean artean askok ikasketak edo lana direla medio, ezin dute».

Urte guztian zehar txapelketa ugari izaten dituzte pilotari hauek. Horrexegatik batzordearen ikuspuntutik «pilotalekua gehiago lantzea» da, eta txapel-

ketak, berriz, gutxiago egitea. «Batzutan gehiegizkoa da. Txapelketak ezinbestekoak direla badakigu, pilotariak motibatu egiten baitira, baina lehiaketa gehiegi izatea ere ez da beraientzat batere komenigarria».

Horrexegatik, txapelketa batzuetan parte hartzeari ezezkioa eman behar izan die eskolak: «Euskal Herriko leku askotatik deitu digute torneo ezberdinetatik, gure eskolak ospe dexente baitu, baina ezezkioa esan behar izan dugun».



Aurrera Pilota Eskolako zenbait lagun, entrenatzen. N. GARZIA

Anartz Olano Gabonetako Txapelketan, irabazle

Lizarran jokatu berri den Gabonetako Txapelketak emaitza onak izan ditu Aurrera pilota eskolarentzat, eta are gehiago, bertako bi pilotarientzat, Jon Jaunarena eta Anartz Olanorentzat, alegia, biak finalera iritsi baitziren, bakoitza bere kategorian. Olanok, gainera, finala irabazi zuen.

Txapelketa honetan hasi berrien kategorian aritu zen Olano aresoarra. Ordiziako Iri-

barriekin batera jokatu zuen Oñsaldo (Ituren)-Larunberen (Burlata) aurka eta 4 tantorekin irabazi zuten, 18-14. Txapelketa honetan bikoteak nahasi egin zituzten, eta horregatik Aurrera Pilota Eskolako kide batek beste klub bateko pilotari batekin jokatu zuen finala.

Jon Jaunarenari dagokionez, kadeteen kategorian jokatu zuen Lukin pilotariarekin. Fi-



Anartz Olano koparekin. N. GARZIA

nalean Antsotegi eta Lanaren aurka lehiatu ziren, eta azkenean 6 tantoko alde lortu zuten hauek, leitzarra eta bere lagunari 16-22rekin irabaziz.

«Nafar Jokuen Txapelketako lehenengo buelta Gabon aurretik bukatu zen eta Lizarran jokatu den Eguberrietako Txapelketa honetarako lehenengo faseko pilotari itxurosoenak aukeratu zituzten», dio Patxi Sagastibeltzak, Aurrerako Pi-

lota Eskolako arduradunetako batek.

Partidan lau pilotariak «gogor» aritu zirela azaldu du Anartz Olanok. «Hasieratik ez genuen garbi ikusi nork irabaziko zuen, parekatu xamar bairkindoazen». Azkenean, ordea, leitzarra eta ordiziarra gailendu ziren. Ez da Anartz Olanok irabazten duen lehenengo finala, urte batean dagoeneko lau kopa bereganatu baititu. ◀

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Amasa. I. Emakumeen Pilotari Txapelketako 9. jardunaldia eta azkena, pilotalekuan, 16:00etatik aurrera.

Irura. Udalak Landa-inguruneke Etengabeko Ikaskuntza Heziketa Jardueren barruan bi ikastaro hauek eman nahi ditu herrian urtarrilean edo otsailean hasita: Euskal sukaldaritza sortzaile berria eta Ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazkukitua. Beraz, adin-nagusiko interesatuek udaletxean, liburutegian edo 943 69 13 33 telefono zenbakira deituz eman dezakete izena. Kultura.irura@udal.gipuzkoa.net-era idatziz ere egin dezakete urtarrilaren 19a baino lehen.

Ibarra. Euskara Zerbitzuak, urte berrian sartu garen honetan, 2007ko egutegiak argitaratu ditu nahi duen orok eskuratu ditzan. Interesatuek udaletxean eta Euskara Zerbitzuan jaso ditzakete doan honako ordutegian: 09:00etatik 13:00etara.

Leitza. Gaur hasi eta apirilaren 1era arte jokatu den Nafar Jokuen Txapelketaren ondorioz, larunbatero pilota partidak jokatu dituzte Amazabal pilotalekuan, 10:00etan. Gaur izango dute lehen jardunaldia.

Tolosa. Izeba Pilarren ilobak eta Ska Machine musika taldeen kontzertuak izango dira entzungai, 22:30etik aurrera, Bonberenean.

Tolosa. Inauterietako haur danborradaren lehen entsegua, 15:30etik aurrera, musika eskolan.

Tolosaldea. Sahararren aldeko 3. euskal karabana, hilaren amaierara arte.

«Eskerrik asko»

ALEGIA ▶ Intxurre futbol eta areto futbol taldekoen izenean, Torneoko antolatzaileei opari bat eman zieten



Intxurre futbol taldeko ordezkari eta diruzaina Shanti torneoko antolatzaileei oparia entregatzen. HITZA

NEREA URBIZU

Shanti areto futbol torneoak joan den asteetan 25 urte bete ditu. Tolosaldeko hainbat futbol jokalarik, bai neskek, mutilek, txikik, koxkorrek zein gaztetxok parte hartu dute txapelketa honetan: 25 urte luze zein emankor hauetan egin izan den txapelketan. Eguberrietako Txapelketa hau Shanti Kirolak dendako jabeak aritzen dira antolatzen, Usabalen jokatu den ligaxkan joko eta gozamina egoteaz arduratzen direnak, alegia.

25 urte hauetan egindako lana saritzeko asmotan, Alegiko Intxurre futbol eta areto futbol taldekoen detailetxo bat oparitu zieten Shanti Torneoko antolatzaileei. Ana Jesus Anso-renak egindako zeramikazko koadro bat jaso zuten, Patxi Renobales Intxurreko diruzain eta ordezkariaren eskutik. Zeramikazko egituran Intxurrekoen armarrria zegoen egina. Shantikoek ahazten zail izango duten detailea, ezbaiz gabe.



Intxurreko infantilek aurtengoarekin hirugarrenez irabazi dute. P. R.

Honetan, urte batzuetan 67 talde parte hartu izatera iritsi dira. Aurtien Eguberrietako Torneoan benjaminak, alebina eta infantilak ibiltzen dira, eta duela 25 urte hasi ziren. Amezketakoak, Anoetakoak,

Alegikoak, Tolosakoak... Beraz, gaur egun 35 urte inguru dituen jendea horretan aritu izan da. Oroimen politikak izango dituzte futbol jokalarik gazte handi horiek, ziur.

Udaletxean, Kultur Etxean, ikastetxean, nahiz supermerkatuetan utzi beharko dira elikagaiak.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ana Jesus Ansoarena margolariaren zeramika koadro lanak daude ikusgai, jubilatuen tabernan, bihar arte.

Tolosa. Hondakinengintza Ingurugiro erakusketak ikusgai izango da Aranburu Jauregin. Gaur izango da azken eguna. Bisita-orduak 17:30etik 20:30era bitarte, jaiegunetan eta astelehenetan izan ezik.

Tolosa. Maria Jose Rekalde eskulturgilearen eskultura erakusketak Aranburun hil honen 20ra arte.

Tolosa. Ana Jesus Ansoarena margolariaren zeramika koadro lanak ikusgai daude, Tolosako Lanbroa tabernan.

ZINEMA

Tolosa. *El perfume* filma gaur izango da ikusgai, 19:30ean eta 22:30ean Leidor aretoan.

Tolosa. *Cristobal Molon* gaztetxoentzako filma 17:00etan Leidor aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitza hegan.*

Goiko irrati (107.0 FM)
 12:00. *kornerra.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aratz Iraeta. Txob! Zorionak zure 4. urtebetetzean eta ondo pasa familiarren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea **Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**